

NAFARROAKO
Aldizkari Ofiziala

154 Zenbakia - Data: 24/12/2004

II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

**2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK
BURLATA**

Burlatako udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantzako 21. artikulua aldaketa. Behin betiko onespena

Burlatako Udalak, 2004ko irailaren 1eko osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Burlatako Udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantzako 21. artikulua aldaketa.

Aurreko erabakia 2004ko 121. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, urriaren 8an. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325 eta 326. artikuluekin bat, argitalpen hartatik hogeita hamar eguneko jendaurreko aldia haren kontra inolako erreklamaziorik egin gabe iragan denez, hasierako onespena behin betikoa bilakatu da. Hortaz bada, argitara ematen da 21. artikuluko aldaketaren testu osoa, alegia, Burlatako Udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantzarena.

21. artikulua. Biztanle euskaldunak.

1._Burlatako Udalak, aldian behin, azterlana egingen du biztanle euskaldunen portzentajea jakiteko, udalerraren egoera soziolinguistikoa hobeki ezagutu eta horiendako kanpaina berariazkoak hobeki egin beharrez. Orobat, borondatezko izen emateen bidez, Burlatako euskaldunen zentsua egingen du, berme guztiakin egin ahal izateko kanpaina berariazkoak.

2._Abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 20.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, euskaldunen fitxategiak ezaugarri hauek izanen ditu:

a) Helburua eta aurreikusiriko erabilerak: soziolinguistikokoaren esparruan lanabesa eskura izatea, hizkuntz programa berariazkoak prestatzeko hiztunaren hizkuntz ezaugarriei begiratuta.

b) Ukituriko pertsona eta taldeak: Burlatako herritarrak.

c) Datuak biltzeko prozedura: datuak interesatuak emanen ditu, edo haren legezko ordezkariak, inprimaki bat betez.

d) Fitxategiaren oinarritzko antolamendua eta bertan sartuko diren datu pertsonalak:

1. Identifikazio datuak:

_Izen-deiturak.

_Helbidea.

2. Datu pertsonalak:

_Adina.

_Sexua.

3. Ikasketen eta lanbideen gaineko datuak:

_Prestakuntza.

e) Datu pertsonalen lagapena: fitxategiko datuak ez dira inori ez inolako entitateri lagako edo jakinaraziko, interesatua ez bada, eta ez da haiekin nazioarteko transferentziarik egingen.

f) Fitxategiaren ardura duen unitate organikoa: Burlatako Udala.

g) Fitxategietan sartu, datuak zuzendu eta ezabatzeko eskubidea zein unitatetan erabili: Burlatako Udalaren Euskara Zerbitzua; helbidea: San Juan plaza, 1, Burlata. 31600 P.K. (Nafarroa): telefonoa: 948 23 84 00. Fax zk.: 948 24 48 48. E-mail: i.rikarte@burlada.animsa.es.

h) Segurtasun neurriak: segurtasun plana ezarriko da, oinarrizko mailan.

Burlatan, 2004ko azaroaren 10ean. _Alkatea, José Muñoz Arias.

__ __ L0417763 __

N.A.O. | Aurkibidea